

Txostena



beaz
2015

Aurkibidea

Diru-laguntzen kudeaketa	4
Zerbitzuak	6
Inkubagailuen kudeaketa	10
Ekimen sektorialak	16
Inpaktua enpresa egituran	20
Ekintzailtza eta berrikuntza sistemako eragile aktiboa	20
Eusko Jaurlaritzaren SPRIrekin elkarlanean egindako ekintzak	20
Bilboko Udala-Bilbao Ekintzarekin elkarlanean egindako ekintzak	21
Bizkaiko Foru Aldundia-Masschallenge lankidetzaren eremua	21
Ekintzaile eta enpresa berritzaileen errekonozimendua	22
Etekin operatiboa	23

Beaz Bizkaiko Foru Aldundiaren sozietate publiko bat da eta haren helburua enpresei eta ekintzaileei proiektu berriak sortzeko, berritzeko eta nazioartera zabaltzeko egiten dituzten ahaleginetan laguntzea da.

Beaz Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Foru Sailaren menpean dago eta haren helburua bat dator Sailaren xede nagusiarekin: jarduera ekonomikoa eta lanpostu kualifikatuak haz daitezen laguntzea.

Helburu horiek lortzeko Beazek Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren diru-laguntzak kudeatzen ditu eta, gainera, beste zerbitzu batzuk eta inkubagailuak ere baditu. 43 langileko taldea -2015eko irailtik Ainara Basurko zuzendari nagusiaren gidaritzapean- lanean ari da enpresei eta ekintzaileei laguntza emateko.



Diru-laguntzen kudeaketa

Beazek, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde laguntzaile legez, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak Bizkaiko ekintzaile eta enpresen esku jartzen dituen programen zehazketa, balioztapen, erabaki eta kudeaketan esku hartzen du.

Kudeatutako programak

- Enpresa proiektu berritzaileen garapena // Ekintzaile
- Enpresa berritzaile berrien sorkuntza
- Berrikuntza sustatzeko plana
- Nazioartekotze programa
- ETEetan inbertsio aurreratua egiteko laguntza. EETIFIL
- Artisautza
- Bizkaia Sortzailea
- Bizkaia Digitala
- Ekintzailtza eta gizarte berrikuntza

Lagundu diren proiektuek 3 urteko epean, fakturazio eta enpleguari dagokionez, hurrengo inpaktua izango dutela aurreikusten da:

	Espero den fakturazioa	Espero den enplegua
Ekintzailtza	191 262 545 €	889
Berrikuntza	60 325 004 €	220
Nazioartekotzea	80 302 748 €	170
Sektore berriak (Bizkaia Sortzailea, Bizkaia Digitala eta Gizarte Berrikuntza)	16 876 968 €	164
Total	348 767 265 €	1 443

Kudeatutako programak: 9
Kudeatutako programetan esleitutako funtsak: 13 003 438 €
Aurkeztutako proiektuak: 832
Onartutako proiektuak: 585
Enpresak sortu eta hazteko onartu diren proiektuetan hiru urtera aurreikusten diren emaitzak:
Enplegua: 1443
Batez besteko enplegua: 3,42
Fakturazioa: 348 767 265 €
Batez besteko fakturazioa: 826 463 €
Ekoizkortasuna (fakturazioa/lanpostuak): 241 696 €

Hurrengo taulan aurkeztu eta lagundu diren proiektuak eta laguntza programetan emandako diru-laguntzak agertzen dira:

	Aurkeztutako proiektuak	Lagundutako proiektuak	Emandako diru-laguntza
Ekintzailtza	147	99	2 656 994 €
Berrikuntza	195	133	2 961 669 €
Inbertsioa	184	112	2 376 571 €
Nazioartekotzea	158	131	3 195 000 €
Sektore berriak (Bizkaia Sortzailea, Bizkaia Digitala eta Gizarte Berrikuntza)	95	59	1 505 677 €
Artisautza	53	51	307 527 €
Total	832	585	13 003 438 €

Zerbitzuak

Beazek zenbait zerbitzu eskaintzen ditu enpresen sorkuntza, hazkunde eta finkatze-prozesuan funtsezkotzat jotzen dituen alderdiak indartzeko

Zerga-kalifikazioko txostenak

2015ean, hirugarren urtez, Beazek Berrikuntza teknologikoaren zioz Sozietateen Gaineko Zergan kenkariak eskatzeko kalifikazio txostenak egin zituen. Txosten-kopurua aurreko urtekoa baino %60 handiagoa izan zen eta horrek agerian uzten du Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak eta Beazek sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren fruitua den zerbitzu honek duen interesa.

Egindako txosten kopurua: 130
Enpresa kopurua: 91
Aplikaturako kenkariaren aurreikusitako zenbatekoa: 1 538 290,87 €

Bizkortzea

Bizkortze-zerbitzua funtzionatzen egon den bigarren urtea izan da. 2014. urtean bizkortutako proiektuen –denak On Bizkaia Enpresa Sariak irabazi dituzten enpresek garatutakoak– balantze ona ikusita Beazek zerbitzua zabaltzea erabaki zuen, hazkunde handia izateko aukerak dituzten proiektuetan beste antolakunde batzuei ere aplikatu ahal izateko.

10 enpresa bizkortuta: 4 ON Bizkaia Saridun + beste 6 enpresa
Zerbitzua jaso ondoren enpresek fakturazio eta enpleguan aurreikusitako batez besteko hazkundera:
<ul style="list-style-type: none">• %30eko gehikuntza fakturazioan• 3,6 lanpostu berri sortzea

Barne-ekintzailtza

2015ean Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak abian jarri zuen Barne-ekintzailtza bultzatzeko ekimena hiru foru aldundien eta euskal BICen laguntzarekin; Beaz zentro horietako bat da. Antolakundeetatik bertatik negozio berriak sortzeko helburuarekin sortu zen ekitaldiaren barruan zabalkunde, gaikuntza eta networking jarduerak eta adituen laguntza daude.

10 enpresa eragilarekin lan egin dugu: CAF, Cikautxo, Ega Master, Egile, Ikor, Praxis, Artech, Gestamp, BH eta Ulma
35 enpresari laguntza eman diegu Lehiabide eta Barne Ekintzaile programen bidez
Antolatutako bilera, topaketa eta mintegiak: 9
100 pertsona baino gehiago antolatu diren trebakuntza-mintegietan
400 pertsona inguru antolatutako jardunaldietan
100 enpresa baino gehiagotara bisitaldiak BICen bitartez

“ Bizkortze-zerbitzuak produktu/negozioa finantzen aldetik garatzen laguntzeaz gain, networking eta enpresa/pertsonen arteko elkarlanean ere lagungarria izan zaigu”
Iratxe Zuluaga, Ariadna Instruments

Networking

Lankidetzaproiektuak hautemateko eta interes berdinak dituzten enpresen arteko harremana errazteko, 2015ean Networking zerbitzuak bi ekitaldi antolatu zituen. Lehenengoan gai nagusia gizarte berrikuntzako proiektuak bultzatzen dituzten antolakundeen arteko lankidetzak aukerak izan zen; eta bigarrean, inkubagailu-bizkorgailu batean elkarrekin dauden startupen arteko lankidetzak.

Antolatutako saioak: 2

Bertaratutako pertsonak: 44



SLen eraketa telematikoa

Enpresak telematikoki sortzeko zerbitzua funtzionatzen egon den bigarren urtean finkatu egin da eta egindako eskaerak %50 handitu dira. Izapidetzeaz gain, ekintzaileen proiektuei informazio eta aholkularitza zerbitzua ematen zaie.

Informazio eta aholkularitza: 44 enpresa

Eratutako SLak: 23

Finantzaketa-Dirulaguntza mapa

ETEEK bultzatutako proiektuetan finantzazio handiagoa lortzeko, Finantzaketa-Dirulaguntza mapa zerbitzuak bilerak antolatzen ditu CDTI, ENISA, eta SPRI taldeko teknikariek. 2015ean lehenengo aldiz pyme Tresnaren diru-laguntzak sartu dira, Horizonte 2020 estrategiaren barruan.

Antolatutako saioak: 3

Bertaratutako enpresak: 56

Elkarrizketa pertsonalak: 19

Enpresek lortutako finantzazioa: 2 553 250 €



EEN Sarea

2015ean Euskal Nodoak, eta berarekin batera Beazek, bigarren kontratua sinatu zuen Enterprise Europe Network-ekin eta 2020a arte egongo da indarrean. Beazek ekitaldiak antolatzen esku hartzen du –bakarka zein beste erakunde batzuekin elkarlanean– ETEen nazioarteko lankidetzak sustatzeko; Europako homologoekin elkarlanean jardun nahi duten ETEei aholkularitza ematen die eta bazkideak bilatzen dizkie; eta Saretik eskaintzen diren zerbitzuei zabalkundea ematen die hainbat bide erabiliz.

Hemengo/eskualdeko ekitaldiak antolatzea: 6

Hemengo/eskualdeko ekitaldietan parte hartu dutenak: 148

EEN Sareak emandako zerbitzuak: 44

Online-informazio zerbitzuetan harpidetutakoak: 3 947



BEAZko guneak

Beazek enpresa eta ekintzaileen esku jartzen dituen guneetan gero eta jardura gehiago antolatzen da. Hainbat jardura-mota burutzen da –horietako asko sormen-arloak bultzatuak–, eta gelen erabileran landinamika desberdinak erabiltzen dira Beazko guneetan.

Bizkaia Sortzailea Guneko jarduerak: 50

Bizkaia Sortzailea guneko jardueretara bertaratutakoak: 1908

Beazko gelen erabilera: 335

Bilerak 2166 pertsonarekin

Bizkaia Mentoring Network

2015ean Beazek, Cebek, Deusto Business Alumni eta Euskalitek batera, hazteko aukera handiak dituzten proiektuak bizkortzen laguntzeko mentoring sare bat sortzea bultzatu zuen. Urte osoan plataforma eta zerbitzua garatzen eta aholkulariak hautatzen lan egin zen. 2015eko abenduan abian jarri zen Bizkaia Mentoring Network.

Erregistratutako aholkulariak: 32

Enpresa proiektuen hedapena

Beazen hedatze-kanalak bultzatu eta dibertsifikatu egin dira Bizkaiko enpresa eta ekintzaileen jarduera eta proiektuei zabalkundea emateko. 2015ean abian jarri zen KBi Digitalen weba eta, bereziki, bultzada eman zitzaion bideoak argitaratzeari eta gizarte sareetan presentzia edukitzeari.

Bisitaldiak webera: 32 668
Sarrerak blogean: 205
Hileroko buletinak: 10 (3 200 harpidedun)
Argitaratutako bideoak: 43
Gizarte sareak: 8 388

Inkubagailuen kudeaketa

Beazek proiektuak inkubatzeko eta bizkortzeko sare propioa dauka.



Kabi 612

Kabi 612 (orain BIC Bizkaia) teknologia bio-mikro-nanoetan, manufaktura aurreratuan eta teknologia garbietan espezializatutako inkubagailua da, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sustatua eta Beazek kudeatua.

2014ko urrian sortu ondoren iaz lehenengo urtea bete zuen eta lankidetzan garapen berriak sustatzeko inkubatuta dauden enpresen artean harremanak sortzen berebiziko ahalegina egin da.

Inkubatutako enpresak: 19
Enplegua inkubatutako enpresetan: 246
Inkubatutako enpresen fakturazioa: 12 823 588
Jardunaldiak: 8
Jardunaldietara bertaratutako pertsonak: 465

Jardunaldiak

- Pyme Tresna Programari buruzko lantegia
- FABulous bizkortze-plataformaren aurkezpena
- CDTIren 2015eko finantzatze-plataformen aurkezpena
- 3D inprimatze-estazio autonomoa erakusteko jardunaldia
- Bizkaiko enpresen nazioartekotzeari buruzko bilera
- Energia eta ekintzailtzari buruzko 2. bilkura
- Material Connexion Bilbao-ren aurkezpena
- Barne-ekintzailtza, Gonzalo Martínez de Azagarekin solasaldia

Inkubatutako enpresak

Aadvantage Lab S.L.

Addimen Bizkaia S.L.

Aleovitro S.L.

Bioftalmik S.L.

Biofungitek S.L.

Horus Pharma Ibérica S.L.

IMG Pharma Biotech S.L.

Ingran Engineering S.L.

Kimiker Quemical Research S.L.

Lumiker Aplicaciones Tecnológicas S.L.

Novattia Desarrollos S.L.

Oceantec Energías Marinas S.L.

Osasen Sensores S.L.

RDT Ingenieros Bilbao S.L.

Saionaimer S.L.

Sendabio S.L.

Stemtek Therapeutics S.L.

Tubacex Innovación AIE

Vacunek S.L.

KBi Digital

KBi Digital ekintzailatza digitaleko proiektuetarako inkubagailu aurreratua funtzionatzen egon den lehen urtea izan da. Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak elkarrekin bultzatu eta Bilbao Ekintza eta Beazek kudeatzen dute. 2015ean inkubatutako enpresetan haien hazkunde, bideragarritasun eta merkatuko posizionamendua garatzeko estrategia finkatu zen.

KBi Digitalek badu bereizgarri bat, bizkortze-zerbitzu pertsonalizatua alegia. Horren bidez ekintzailatza digitaleko adituek laguntza ematen diete startupeei honelako proiektuen abian jartze eta eskalagarritasunean izaten dire gai kritikoak identifikatzen eta aztertzen. Aholkularitza pertsonalizatuaz gain, enpresen profiler egokitutako trebakuntza-egitaraua eta proiektu berriak erakartzeko dinamizatze programa dauzka.

Inkubatutako enpresak: 13
Profesionalak: 3
Enplegua inkubatutako enpresetan: 62
Prestakuntza jardunaldiak: 8
Dinamizatze saioak: 5
Zabalkunde ekintzak: 8



Jardunaldiak

- Ingurune digital berria negoziotan
- Ekintzailatza digital arloko joerak
- “Nola aplikatu negozio eredu berriak zure enpresan” workshopa “
- Merkatu azterketa startup digitalentzat
- Ekintzaile digitalen lege arazoak
- Business Analytics eta datuen kudeaketa
- Komunikazioa eta hedabideen kudeaketa startup digital batean
- Ordainbideen kudeaketa eta iruzurra

Profesionalak

Markos Espina
Mikel Resines
Onura bat

Inkubatutako enpresak

Buscolook S.L
Bugaloop
B&V Aplicaciones Móviles S.L
Domesticoo
Decoramus Network S.L.
Dog vivant
Lattip
Whereel
Quarizmi Adtech S.L.
Restuento
Solidarters Project S.L
Wegow Música S.L
MiniShoes

Design Kabi

Design Kabi negozioa zehazteko eta enpresaren bideragarritasuna aztertze fasean dauden enpresa proiektuetarako inkubagailua da, Beazen kokatua. 2015ean abian jarri zen enpresa kudeaketari buruzko prestakuntzaren mikropilula programa eta, halaber, inkubatutako pertsonen artean bilera informalak –Kabi Ostiralak– antolatu ziren, haien artean sinergiak sortzeko, coworking-gune honetan hori funtsezko alderdia delako.

Inkubatutako proiektuak: 21

Prestatze-pilulak: 8

Kabi Ostiralak bilerak: 7

Inkubatutako proiektuak

Addimen	Noticias de agencias.com
Appkideak	Peopleing
Armuseli	Sistemas de análisis químicos modulares
Buzz	Simulador Airbus 320
Gemfeed	Smart Horse
Huggo S. Coop.	Sugar
Ing-tubo	The Food Mirror
La huella de la vida	Tuomas Kuure,
Mishair comunicación, S.L.	Undersat mobile computing IT, S.L.
Nettin	Yo fui a EGB
New media Euskadi, S.L.	



Prestakuntza

- Enpresa kudeaketaren oinarriko kontzeptuak eta hastapenak
- Estrategia eta berrikuntza
- Bezeroak
- Pertsonak, lidergoa, antolaketa, komunikazioa
- Baliabide eta gaitasunak. Negozioaren egoera ekonomikoa
- Prozesuak eta antolakundearen jardura giltzarriak
- Emaitzak, kontuan hartu beharreko kudeaketaren adierazleak

Zitek

Zitek EHUk, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Beazek sustatzen duten ekimena da eta haren helburua EHUren Bizkaiko Campusean ekintzailtza-kultura zabaltzea eta enpresa berritzaileak eta teknologia oinarria dutenak sortzea da.

Horretarako hiru unibertsitate haztegi dauzka -Leioa, Portugaleta eta Bilbon-, eta baita Ekintzailtza kultura zabaltzeko programa, 2015ean Enpresa Sustapenerako Europako Sarien finalista eta espainiar Estatuko finalean irabazlea izan zena.

Inkubatutako enpresak: 15

Ekintzailtza kultura programa: 12 ekimen

Ekintzailtza kultura programa

- Ekinduz lehiaketa
- E-mprende lehiaketa
- Think Big lehiaketa
- Zitek programa hedatzeko hitzaldiak
- Aukerator gunea
- Etorkizulan
- Lanbide orientabiderako jardunaldiak
- Hasten Ikasten mintegiak
- Ikasi Ekiten mintegia
- Kultura autogestiorako Ikasberri mintegia
- Zientzia Asteko "Ekintzailtza eta sormena" lantegia
- ZitekCoffees



Inkubatutako enpresak

Hidrógeno del Norte, S.L.

Meiquer ingeniería, S.L.

MetaUniversidad

Nanoinorganic and Magnetic Particles, S.L.

Servicio Diagnóstico de Patología Oral y Maxilofacial, S.L.

Arquinea

Basquenet, C.B.

Flying Dodos

Green Proiekt, C.B.

InCharge Ibérica, S.L.

Insignia, S.L.

Lamarencalma

Norlock, S.Coop.

Social media consulting

Uknatura

DeustoKabi

Teknologia oinarriko haztegi hau Bizkaiko Foru Aldundiak eta Deustuko Unibertsitateak bultzatzen dute unibertsitate spin-offak bultzatzeko xedeaz. Beazek bertan ekintzaileei aholkularitza eta laguntza zerbitzuak eskaintzen dizkie. 2015ean Deustuko Unibertsitateak abian jarri zuen Deusto Fab Lab, inkubatutako startupeei prototipo arinak egiteko aukera ematen dien zerbitzua. Gainera, networking saioak egiten dira unibertsitarioekin.

Inkubatutako enpresak: 11

Beclever, S.L.

Easi technologies and consulting services, S.L.

Edooca, S. C.P.

Ictiotech S.L.U.

Linked Knowledge, S.L.

MathLan Matematika, S.A.

Nexmachina Solutions, S.L.

Social Media Technologies, S.L.

Techabout, S.L.L.

The human's movement, S.L.

Unexpendables, S.L.



Ekimen sektorialak

Zenbait sektore eta arlotako jarduerak, berrikuntza eta nazioartekotzea bultzatzeko diru-laguntza sektorialak kudeatzen ditugu.

Bizkaia Sortzailea

Beazen ekite-ildoetako bat sormen-sektorea bultzatzeari dagokiona da eta helburu hau zenbait tresnaren bitartez gauzatzen da. Horien artean daude Bizkaia Sortzailea foru programa eta BiDCren idazkaritza nagusia kudeatzea, hemengo eta nazioarteko ekitaldiei laguntza ematea eta UNESCOren sormen-hirien sarearen barruan egotea.

Bizkaia Sortzailea programa

2015ean Beazek, laugarren urtez jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia Sortzailea programan parte hartu du. Honen helburua bideo-joko, ikus-entzunezko, moda, produktuen diseinu eta arkitektura sektoretan enpresa proiektuak sustatzea da.

Aurkeztutako proiektuak	45
Onartutako proiektuak	27
3 urtera proiektatutako enplegua	39
3 urtera proiektatutako fakturazioa	10,1M €
Diru-laguntzaren zenbatekoa	0,64M €

BIDC

Beaz, Bilbao Ekintzarekin batera, BiDC - Bilbao Bizkaia Design Council-en idazkaritza teknikoaz arduratzen da. Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak abian jarri zuten ekimen honen helburua sormen-industriak Bilbo eta Bizkaiaren garapen ekonomiko eta nazioarteko proiektuak faktore legez sustatzea da.

BiDC sormen-sektore ezberdinetako 216 enpresaren foroak eta ekonomia, kultura eta arlo akademikoetako hemengo 24 erakunde esanguratsuk osatzen dute. 2015ean Beaz denekin harremanetan egon zen elkarrekin ekimenak antolatzeke eta sormen-industriak bultzatuko dituzten proiektuak garatzen elkarlanean aritzeko.

2015eko azaroaren 16tik abenduaren 1era BiDCk Bilbao Bizkaia D Week koordinatu zuen, hamar sormen-arlorekin lotutako hemengo eta nazioarteko 44 ekitaldi bildu zituen jardunaldi-sorta, 20 eragile baino gehiagok sustatua. Hamabostaldi horretan BiDCk, halaber, enpresen urteroko hirugarren foroa eta Cities & Design eta Industries & Design jardunaldiak antolatu zituen.

Inpaktua enpresa egituran

Beazek Bizkaiko Foru Aldundiaren enpresak sortzeko programaren laguntzaz sortutako enpresa berritzaileen emaitzak ebaluatzen ditu urtero. 2015ean egindako ebaluazioa 2010-2014 denboraldian sortutako enpresei dagokie.

Startupen emaitzak 2010-2014	
Enpresa kopurua	195
Biziraupen-indizea	%85
Fakturazioa guztira	135.010.055,98 €
Batez besteko fakturazioa	854.494,03 €
Enplegua guztira	1.149,5
Batez besteko enplegua	7,28
Kapital soziala guztira	89.756.047 €
Batez besteko kapital soziala	568.076,25 €
Guztira esleitutako diru-laguntzak	10.746.623 €

Sortutako enpresak oso sektore ezberdinetakoak dira, bereziki produktuen teknologia handiagoa edo ezagutza-zerbitzu aurreratuak eskaintzen dituzten haietakoak. Horien artean nabarmendu egiten dira jarduera profesional zientifiko eta teknikoak (%31,85), informazio eta telekomunikazioak (%31,85) eta manufakturako industria (%14,65).

Ekintzailtza eta berrikuntza sistemako eragile aktiboa

Eusko Jaurlaritza-SPRIrekin elkarlanean egindako ekintzak

2015. urtean hurrengo eremuetan lan egin da elkarlanean:

- SPRIren ekintzailtza programak (Ekintzaile, Luzaro-Ekintzaile eta MiniConnect).
- Eusko Jaurlaritzaren Basque Funtse kudeatzea.
- Eusko Jaurlaritzaren barne-ekintzailtza programa.
- Bizkaiko Teknologia Parkean kokatuta dagoen BIC Bizkaia (lehen Kabi 612 zena) inkubagailua aurreratua.
- Ezkerraldeko Enpresen Garapen Zentroa – BIC Bizkaia Ezkerraldea (lehen Cedemi) kudeatzea

Bilboko Udala-Bilbao Ekintzarekin elkarlanean egindako ekintzak

2015. urtean hurrengo ekimenak dinamizatu dira elkarlanean:

- KBi Digital inkubagailuaren kudeaketa
- BiDCren idazkaritza batera kudeatzea. Bizkaiko sormen-sektoreen zenbait ekimen bultzatzea

Bizkaiko Foru Aldundia-Masschallenge lankidetzaren eremua

2015ean Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzaren akordioa sinatu zuen munduko enpresa-bizkorgailurik handiena den MassChallengerekin, Bizkaiko ekintzaileak eta startupak berrikuntza-ekosistema globaleko merkatu, sare eta inbertsiogileekin konektatzeko.

Ekintzen artean, akordioan hemengo startupen lehiaketa bat antolatzea agertzen da, irabazleak Masschallengek Bostongo egoitzan dauzkan bizkortze-zerbitzuak onuratu eta munduko finalaurrekora joan ahal daitezen.

Beazek lehiaketa dinamizatu eta koordinatu du eta guztira 55 startupek esku hartu dute



Ekintzaile eta enpresa berritzaileen errekonozimendua

ON Bizkaia enpresa sariak Bizkaiko enpresa txiki eta ertainak goraiatzeko jarduerak ekonomikoak eta lanpostuak sortzen egiten duten ekarpenarengatik.

Bizkaiko Foru Aldundiaren programa-deialdietan aurkezten diren enpresen proiektuak saritzen dira, zenbait ataletan. 2015ean bigarren edizioa burutu zen eta hauexek izan ziren saridunak:



Sorkuntza proiektu hobereana	DB Iberia 2013
Berrikuntza proiektu hobereana	Protec Arisawa Europe
Nazioartekotze proiektu hobereana	Engineering and Technical Services
Bizkaia Sortzailea proiektu hobereana	Relevo Videogames
Spin off baten ibilbidea	Gestamp Tool Hardening
startup baten ibilbidea	Dynakin

Etekin operatiboa

2015ean Beazek guztira Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren 9 programa kudeatu ditu. Halaber, 2015ean 235 enpresa baino gehiagok erabili dituzte Beazek ematen dituen zerbitzuak eta haztegi eta inkubagailuetan 81 ekimen egon dira inkubatuta.

2015	
Aurrekontu operatiboa (M€)	4,5
Batez besteko langile kopurua	43
Kudeatutako programak	9
Programetan kudeatutako M€	13,9
Kudeatutako espedienteak	855
Jarraipena egiten zaien espedienteak	1 159



Sabino Arana 8

48013 Bilbao

T. 944395622

beaz@beaz.eus

beaz.bizkaia.eus